

---

## James Webb teleskopioaren lehen irudiak eta datuak

James Webb teleskopioaren lehen irudiak eta datuak aurkeztu dituzte: unibertsoari inoiz ateratako argazkirik sakonenak eta exoplaneta baten espektroskopia-datu zehatzak.

Lehenengo irudian milaka galaxia ageri dira. [SMACS 0723 kumulua](#) da, 4.600 milioi argi-urtera. Kumuluak lente gisa jokatzen du, eta, horri esker, askoz urrunago dauden galaxiak ere ikus daitezke atzean. "Argazki honekin 13.000 milioi urte atzera begiratu dugu unibertsoan", azaldu du Bill Nelson NASAko administratzaileak.

[Stephanen Boskotea](#) galaxia-multzoaren irudia ere ikusgarria da. Lehenengo aurkitu zen galaxia-multzo trinkoa da (Édouard Jean-Marie Stephan, 1877); Taldeko bost galaxietatik lau dantza kosmiko bortitz batean lotuta dabilta; tarteka, talka egiten dute, eta astro berriak sortzen dira. Webbek orain arte atera duen irudirik handiena da; mila argazki elkartuta osatu den mosaiko bat, 150 milioi pixel baino gehiago dituena. Inoiz ikusi gabeko xehetasunak erakusten ditu: izar gazte eta jaioberrien multzo distiratsuak; galaxien grabitazio-elkarrekintzen ondorioz luzatutako



SMACS 0723 kumulua. ARG.: NASA, ESA, CSA, eta STScI.

Irudiez gain, [WASP-96 b](#) exoplaneta erraldoiaren espektroskopia-datuak ere aurkeztu dituzte. Ura detektatu dute exoplanetaren atmosferan, baita lanbroaren zantzuak eta atmosferan lainoak dituen ebidentzia ere, orain arte uste zenaren kontrara.

[NGC 3132 nebulosaren](#) bereizmen handiko irudi-para ere erakutsi dute. Hilzorian dagoen izar baten inguruan hedatzen ari den gas-hodei erraldoia da, Lurretik 2.000 bat argi-urtera. Webbek bi kamerarekin atera dio argazkia: NIRCam kamerak infragorri hurbilean hartutako irudian izarrak eta haien argi-geruzak nabarmentzen dira; eta, MIRI kamerak infragorriertainean hartutakoan, lehenengoz erakutsi du erdiguneko izar ahulena hautsez estalita dagoela.

gasezko, hautsezko eta izarrezko isatsak; zulo beltz baten inguruko fluxuak; eta galaxietako batek (NGC 7318B) multzoaren kontra talka egitean sortutako talka-uhinak ere harrapatu ditu teleskopioak.

Azkenik, izar distiratsuz betetako "mendi" eta "haranen" paisaia bat; Gila nebulosako [NGC 334](#) eskualdearen ertza da, non izar berriak sortzen ari diren. Labar kosmiko deitzen zaie egitura horiei, eta tontorrik garaienek 7 argi-urteko altuera dute. Hain zuzen ere, orain arte ikusezinak ziren izarren jaiotza-guneak erakutsi ditu. ●



Gainerako irudiak,  
webgunean